ETXEZ-ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA KONTRATUA PROZEDURA IREKI BIDEZ ESLEITZEKO ADMINISTRAZIO- KLAUSULEN AGIRIA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen helburua Aiako Udaleko etxez etxeko laguntza zerbitzua ematea da. Kontratuaren xedea betetzeko baldintza hauek jarraitu beharko dira: kontratuan, plegu hauetan eta Baldintza Teknikoen Agirian adierazitakoak. Agiri horiek guztiek kontratu izaera dute.

2. ARAUBIDE JURIDIKOA

Egingo den kontratua zerbitzuetako kontratu modura sailkatzen da, eta honako arau eta lege hauen menpe garatuko da: azaroaren 8ko 9/2017 Legea, Sektore Publikoko Kontratuena-aurrerantzean SPKL- (17 artikulua); 1098/2001 Errege Dekretua, Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendua onartzen duena, horrek indarrean dirauen bitartean; maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen zati bat garatzen duena; edo horiek ordezkatuko dituzten erregelamenduzko arauak, eta Administrazio- klausula Partikularren Agiri honetan jasotako klausulak.

Espediente arrunta tramitatuko da, kontratua prozedura ireki bidez adjudikatzeko, SPKLaren 156 artikuluan xedatutakoaren arabera.

3. KONTRATAZIO-ORGANOA

SPKLak 2. Xedapen Gehigarrian xedatutakoaren arabera, Alkatetzari dagokio kontratazio hau egiteko eskumena.

Kontratazio-organo horrek du administrazio-kontratua adjudikatzeko ahalmena, eta, horrenbestez, bere eskumenekoak izango dira honakoak ere: kontratua interpretatzea; kontratuan sortzen diren zalantzak argitzea; kontratua aldatzea; eta kontratua amaitzea. Horiek guztiak araudi aplikagarriarekin bat etorriz. Horiei buruz hartutako akordioak betearaztekoak izango dira, nahiz eta enpresa adjudikaziodunak eskubidea izango duen akordio horiek jurisdikzio eskudunaren aurrean inpugnatzeko.

4. KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA

Zuzenbidezko eta jarduteko gaitasuna daukaten pertsona fisiko zein juridikoek hartu ahal izango dute parte kontratazio-jardunbide honetan, baldin eta euren kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala frogatzen badituzte, eta kontratatzeko debekuren bat ez badute, SPKLak 71 artikuluan adierazitako arrazoiak direla eta. Urteko negozio bolumena, gutxienez kontratuaren xede bezela kalkulatu den osotasunezko prezioa baino haundiagoa izan beharko du (110.000 euro).

Pertsona juridikoak adjudikaziodun izan daitezke, soil-soilik euren prestazioak jardueraren xede, helburu edo arloan sartuta badaude eta euren estatutu edo fundazio-arauetan hala jasota badago.

Gainera, kontratua behar bezala betetzeko beharrezkoa den antolakuntza edukiko du (nahikoa langile eta materialekin).

Era berean, pertsona fisiko edo juridikoek beren kabuz edo ahalorde askietsiaren bidez baimendutako ordezkarien bitartez kontratatu ahal izango dute. Pertsona juridikoen ordezkariek agiri bidez frogatu beharko dute ordezkari izateko ahalmena dutela. Kasu batean zein bestean, kontratatzeko gaitasunik eza dakarten arrazoiak ordezkariari ere aplikatuko zaizkio.

Prozedura tramitatzen ari den bitartean eta adjudikazioa egin baino lehen enpresa lizitatzailearen nortasun juridikoa amaitzen bada (fusioagatik, zatiketagatik edo bere enpresa- ondarea eskualdatzeagatik), orduan honako hauetako batek hartuko du prozeduran hark zuen lekua: sozietate bereganatzaileak, fusioaren ondorioz sortutakoak, zatiketaren onuradunak edo ondarea bereganatu duenak, baldin eta kontratatzeko gaitasuna izan eta hartarako inolako debekurik ez badu eta sailkapena eta/edo kaudimena duela egiaztatzen badu, betiere adjudikazio prozeduran parte hartzeko plegu hauetan eskatutako baldintzetan.

Kontratatzeko gaitasuna eta kaudimena enpresa adjudikaziodunak bakarrik egiaztatuko ditu.

5. KONTRATUAREN IRAUPENA ETA GAUZATZE EPEA

5.1 Kontratuaren iraupena, urtebetekoa izango da.

5.2 Kontratua luzatu ahal izango da urtero eta urtebetez luzatu ahal izango da, baina iraupen osoa, luzapenak barne, ezin izango da lau urtetik gorakoa izan.

Luzapena kontratazio-organoak erabakiko du eta enpresariarentzat derrigorrezkoa izango da, betiere, kontratuaren iraupen-epea amaitu baino bi hilabete lehenago gutxienez eta espreski bestelakorik adierazten ez bazaio.

Indarraldia eta, hala badagokio, luzapenak igaro ondoren, kontratua automatikoki amaituko da, eta enpresa esleipendunak zerbitzua emateari utziko dio. Hala ere, nahitaez jarraitu beharko du, baldin eta eslepidendunaren xede den zerbitzu berria lizitatzeko espedientea hasi bada eta enpresa esleipendun berriak bere gain hartu arte. Aldi horretan, kontratuan aurreikusitako prestazioak jasoko ditu.

6. AURREKONTUA. LIZITAZIO TASA

Erabiltzaileari bere etxean zuzenean emandako zerbitzu-ordu bakoitzeko jarritakoa izango da zerbitzuaren prezioa. Bi zerbitzu horiek orduko zein preziotan egiteko prest dauden adierazi beharko dute lizitatzaileek euren eskaintzetan, eta bereizi egingo dituzte lanegunetako orduko prezioa (astelehenetik larunbatera) eta igande eta jaiegunetakoa.

Gehieneko lizitazio-tasa hauek jartzen dira:

<u>Astelehenetik larunbatera, biak barne:</u>

29,68 euro/ orduko + 1,18 euro BEZ (% 4); GUZTIRA: 30,86 euro /orduko

<u>Igande eta jaiegunak:</u>

34,63 euro/ orduko + 1,38 euro BEZ (% 4); GUZTIRA: 36,01 euro /orduko

Enpresa lizitatzaileak, zerbitzuen ordu eta kostuak zein preziotan egiteko prest dauden adierazi beharko dute,

Zuzeneko zerbitzuaren orduko gehieneko lizitazio-tasak, aurrez jasotako berdinak izango dira. Baldintza teknikoen agirian jasotako zehaztasunak kontuan hartu beharko dituzte enpresa lizitatzaileek horiek zehazteko.

Aurreko prezio guztiak gehienekoak izango dira, eta horiek gainditzen dituzten eskaintzak ez dira onartuko; hortaz, lizitatzaileek prezio horiek beherantz hobetzeko aukera izango dute. Eskaintzetan Balio Erantsiaren Zergaren kontzeptua sartuko dute (BEZ), banakatuta. Dena den,

enpresa lizitatzailea salbuetsita badago zerga hori ordaintzetik, espresuki adierazi beharko du bere eskaintzan eta agiri bidez frogatu.

Orduko prezioaren barruan sartuta egongo dira hitzartutako ordutegian egindako ohiko lanek sortutako gastu guztiak; hau da, gastu orokorrak, finantzarioak, irabaziak, aseguruak, joan-etorriak eta lan-jarduna, dietak, adjudikaziodunaren ardurapeko teknikarien ordainsariak, tasak eta edonolako deskontuak. Izan ere, gastu horiek ezingo dira esleipen-prezioaz aparteko partidetan sartu; hau da, Udalak ez du inola ere ordainduko aurreko atalean ezarritakoaren arabera ateratzen den prezioa baino gehiago.

Kalkuluen arabera, hau da kontratuaren urteko gutxi gora beherako prezioa, erabiltzaileei bere etxean zuzenean emandako zerbitzuari dagokionez: 110.000 euro, BEZ sartuta. Zenbateko horretan sartuta daude zerbitzuak eragindako gastu guzti-guztiak.

Ez da bermatuko zerbitzua ematea zenbateko horren truke, eta aleko prezio bidez esleituko da.

7. PREZIOAK BERRIKUSTEA

Kontratu honetan prezioak ez dira berrikusiko.

8. FINANTZIAZIOA

Kontratuaren prezioa ordaintzeko behar beste diru jarri da aurtengo udal aurrekontuan.

Halaber, zerbitzu honek eragindako hurrengo ekitaldietako aurrekontuetan ere behar adina kreditu jartzeko konpromisoa hartu du Udalak.

9. ORDAINKETA

Hilabeteko ziurtagirien bidez ordainduko dira. Enpresa esleipendunak hilero FAKTURA bat aurkeztuko du, aurreko hilean egindako lanei dagokiena. Faktura onartu ondoren, Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 198 artikuluan jarritako legezko epeetan ordainduko da. Enpresa esleipendunari ez dagozkion arrazoiengatik, kontratuaren helburu diren prestazioak aldi batean betetzen ez badira, dagokion ziurtagirian kendura proportzionalak egingo dira. Faktura elektronikoak «Facturae» formatua izan behar dute (www.udalgida.net).

10. BERMEAK

Eskaintza onena aurkeztu duen enpresa lizitatzaileak, errekerimendua egin eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, 10 egun balioduneko epea izango du berme bat eratzeko, hain zuzen ere, adjudikatutakoaren zenbatekoaren % 5ekoa (BEZ gabe).

Kontratuaren enpresa adjudikaziodunaren proposamen ekonomikoa hasieran anormaltzat edo neurriz kanpokotzat jotzen bada, gero onartu ahal izateko, aurreko bermeaz gain, berme osagarri bat eratu beharko du (adjudikazioaren zenbatekoaren % 5ekoa), berme osoa kontratuaren prezioaren% 10era iritsi dadin.

SPKLak 108.1. artikuluan ezarritako moduetako edozeinetan jarri ahalko da berme hori.

Bermea (osorik edo, halakorik bada, zati bat) SPKLak 111. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz itzuliko da, berme-epea bukatutakoan eta adjudikaziodunak kontratatuko

obligazioak bete ondoren.

II. KONTRATUAREN ADJUDIKAZIOA

11. ADJUDIKATZEKO PROZEDURA

Kontratu hau prozedura ireki bidez adjudikatuko da.

Kontratuaren adjudikazioa egiteko honako balorazio irizpideak hartuko dira oinarritzat, bakoitzak duen garrantzi eta haztapenaren arabera beheraka ordenatuta:

11.1. **Formula bidez ebaluatu daitezkeen irizpideak: 51 puntu.**

11.2. **Formula bidez ebaluatu ezin diren irizpideak: 49 puntu.**

11.1. FORMULA BIDEZ EBALUATU DAITEKEEN IRIZPIDEA: GEHIENEZ 51 PUNTU *(C **artxiboan sartu beharrekoa)***

11.1.1. Zerbitzu osagarriak: Gehienez 30 puntu

a) Ohiko garbiketak indartuko dituzten ohiz kanpoko garbiketak. Gehienez 15 puntu

Lizitatzaile bakoitzak urtean 10 ordu eskaini ahal izango ditu gutxienez, eta urtean 20 ordu gehienez.

Atal honetan urtean 10 ordu baino gehiagoko hobekuntzarik eskaintzen ez duen lizitatzaileak 0 puntu lortuko ditu. Gutxieneko ordu kopuruari 0 puntu emango eta ordu gehigarri bakoitzeko 1,5 puntu.

b) Kontsultetara eta kudeaketa administratiboetara laguntzea: Gehienez 15 puntu

Lizitatzaile bakoitzak urtean 10 ordu eskaini ahal izango ditu gutxienez, eta urtean 20 ordu gehienez.

Atal honetan 10 ordu baino gehiagoko hobekuntzarik eskaintzen ez duen lizitatzaileak 0 puntu lortuko ditu. Gutxieneko ordu kopuruari gehitzen zaio ordu gehigarri bakoitzeko 1,5 puntu emango zaizkio.

Udalak beretzat gordetzen du laguntza horiek zein erabiltzaileri eman erabakitzeko eskubidea.

Eskaintzak atal honetan eskainitako kostu ekonomiko osoa jasoko du, udalak gastatutako zenbatekoaren jarraipena egin dezan eta gauzatu gabeko kreditua izan dezan, proposamenen guztizko kontsumoaren norabidean ahalik eta gehien eta hobekien optimizatzeko.

11.1.2 Langileak funtsezko gaitasunetan gaitzeko formakuntza plana: Gehienez 5 puntu. 0.5 puntu 5 orduko talde saio bakoitzeko (gutxienez 2 langile), gehienez 5 puntu.

11.1.3. Eskaintza ekonomikoa: 16 puntu gehienez

Prezio unitarioek ezin izango dituzte gainditu lizitazioaren gehieneko prezioak.

Lizitatzaileak aurkezturiko eskaintzak betebeharrak betetzen dituela ulertuko da, beti ere, gutxienez, eskainitako banakako prezioaren %90a (BEZa kenduta) pertsonalaren gastuetara bideratzen badira, bai zuzeneko arretarako lanaldiaren kostuak baita egiturazko pertsonal kostuak ere.

Eskainitako prezioak lizitazio-maximoa gainditzen ez duela egiaztatu ondoren, eskaintzak baloratuko dira.

Puntuazioa ondorengo metodoaren bidez emango da:

-Asteguneko prezioa (astelehenetik larunbatera) gehienez 10 puntu
-Igande eta jaiegunetako prezioa: gehienez 6 puntu

Puntuaziorik altuena emango zaio preziorik merkeenari, eta formula honetatik ateratzen da gainontzeko proposamenen puntuazioa: preziorik baxueneko eskaintza zatitu baloratzen den lizitatzailearen eskaintzaz eta emaitza hori biderkatuz irizpideari aplikatu dakizkiokeen puntuen kopuru osoa. Hau da:

$$Lp = Et/Le \times 10$$
$$Lp = Et/Le \times 6$$

Lp: lizitatzailearen puntuazioa
Et: eskaintzarik txikiena
Le: lizitatzailearen eskaintza

Eskaintzak neurriz kanpokoak direla edo balore anormalak dituztela ebazteko, aztertu egingo da lizitatzailea ondorengo kasu hauetakoren batean sartzen ote den, Herri Administrazioetako Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorrak 85. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz:

-Lizitatzaile bakarra izanik, aurkeztutako eskaintza ekonomikoak lizitazioaren oinarrizko aurrekontua portzentajezko 25 unitatetan beheratzen badu.

-Bi lizitatzaile izanik, aurkeztutako eskaintza ekonomikoak beste diru-eskaintza portzentajezko 20 unitatetan beheratzen badu.

-Hiru lizitatzaile izanik, aurkeztutako eskaintza ekonomikoak portzentajezko 10 unitatetan beheratzen badu aurkeztutako eskaintza guztien batez besteko aritmetikoa. Hala ere, batez besteko hori ateratzeko ez da sartuko eskaintza ekonomiko altuena, baldin batez besteko hori baino portzentajezko 10 unitate altuagoa bada. Dena den, portzentajezko 25 unitateko beherapena neurriz kanpokotzat joko da.

- Lau lizitatzaile edo gehiago izanik, aurkeztutako eskaintzak portzentajezko 10 unitatetan beheratzen badu aurkeztutako eskaintza guztien batez besteko aritmetikoa. Hala ere, baldin eskaintza horien artean batez besteko hori portzentajezko 10 unitatetan gainditzen duten eskaintzak badaude, batez besteko berria kalkulatuko da, adierazitako azken kasu horretan
  sartzen ez diren eskaintzekin bakarrik. Dena den, gainerako eskaintzak hiru baino gutxiago badira, batez besteko berria kopuru baxuenak dituzten hiru eskaintzekin

kalkulatuko da.

Eskaintzetakoren bat/batzuk anormaltasun presuntzioan baldin badago/badaude, lizitatzaile horiei 5 egun balioduneko epea emango zaie, eskaintza hori baldintza horietan bete ahal izateko inguruabarren justifikazio egoki bat aurkezteko, SPKLren 149.4. artikuluan horri buruz aipatzen diren irizpideekin.

11.2 FORMULA BIDEZ EBALUATZEKOAK EZ DIREN IRIZPIDEAK: GEHIENEZ 49 PUNTU ***(B ARTXIBOAN SARTU BEHARREKOA)***

SPKLaren 146.3 artikuluaren arabera, balorazio orokorrerako onartuak izateko beharrezkoa izango da formula bidez kuantifikatzekoak ez diren irizpideetan enpresa lizitatzaileek % 50eko gutxieneko muga lortzea balio-iritzi baten mende dauden eta formula bidez ebaluatzekoak ez diren irizpideen multzoan. Hala, Kontratazio Mahaiak ez ditu kontuan hartuko 30 **puntutara** iristen ez diren eskaintzak.

Atal horren garapenak ondorengo ezaugarriak eduki beharko ditu:

-DIN A4 formatuko gehienez 10 orri, bi aldetatik edo 20 orri alde bakarretik idatzita. Goian aipaturiko orritik aurrerako edukia ez da balioetsiko.

-Arial 12, tartea 1.5

-Ez dira zenbatuko eskaintza ulertzen laguntzeko diren azala eta aurkibidea.

Atal honetan baloratuko dira:

1.-Etxez etxeko laguntza zerbitzuan pertsona ardatz duen arreta-ereduaren ikuspegia (10 puntu arte).

-Erabiltzaileen ohiko eta presako alta prozesua. 3 puntu.
-Etxez etxeko laguntzailea adjudikatzeko aurreikusten diren alderdiak. 1 puntu.
-Etxeko laguntzaileari pertsonari eta eman beharreko zerbitzuari buruz ematen zaion nformazioa. 3 puntu.
-Zerbitzua aurkezteko proposamena, nork, nola eta idatziz edukia. 1 puntu.
-Zerbitzua aldatzea edo etxez etxeko laguntzailea aldatzea. Erabiltzaileari eta senideei aldaketaren berri emateko prozesua. Jarduera proposamena, erabiltzaileei ahalik eta laguntzaile-aldaketa gutxien egiteko. 2 puntu

2.- Etxez etxeko laguntza zerbitzua antolatzeko eredua. (14 puntu arte).

2.1.- Etxez etxeko zerbitzuaren arretari lotutako prozesu osagarriak hobetzeko planaren proposamena: Profesionalari laguntzea eta informazioa bidaltzea, zerbitzu berriak martxan jartzea, pertsonen eta erakundeen arteko kasua kudeatzea, kasuari buruzko informazioa erregistratzea, bidaltzea eta ustiatzea (6 puntu arte).

2.2.-Etxez etxeko zerbitzuaren erabiltzaileen aniztasun eta konplexutasunari lotutako prestakuntza eta formakuntza plana: lehen sorospenen, trebetasunen eta baliabide pertsonalen, pertsonak mobilizatzeko tekniken, tratu txarren, genero indarkeriaren, osasun mentalaren, dibertsitate funtzionalaren, desgaitasun kognitiboaren, haur, nerabe eta familientzako arretaren eta abarren arloan atxikitako langileentzako prestakuntza espezifikoko urteko programaren proposamena baloratuko da, proposatutako ikastaroen eduki, plangintza eta ezaugarri nagusiekin.

(8 puntu arte).

3.- Koordinazio eredua (10 puntu arte).

3.1.-Zerbitzuaren barne eta Udalarekiko koordinazio estrategikoaren eta operatiboaren dinamikaren proposamena, koordinaziorako oinarrizko dokumentu eta informazio adierazleak eta giza baliabideen hornidura seinalatuz, espezializazioa zehaztuz, hala badagokio, prozesuen bidez (4 puntu arte).

3.2.- Enpresak langileekiko duen koordinazio operatiboaren dinamikaren proposamena: Langileak talde-mailan gainbegiratzeko eta koordinatzeko ereduaren proposamena, informazio eta komunikaziorako espazio-konpartituak sortzea, talde dinamika eta kohesioari laguntzeko dinamiken proposamena. Profesionalen txandakatzea eta lan- osasuna hobetzeko proposamenak, eta familia bateragarri egiteko politikak ezartzeko proposamena; beraz, zerbitzuaren prestazioan izango duen eraginaren proposamena. (6 puntu arte).

4.- Etorkizunerako proposamenak, berritze prozesuak eta etengabeko hobekuntza (10 puntu arte).

4.1.- Hurbiltasuneko EELZ eredua ezartzeko planaren proposamena baloratuko da, taldearen antolaketari, erabiltzaileen beharren balorazioari, funtzioei eta eredua ingurune komunitarioan integratzeko metodologiari buruzko zehaztasun handiagoa emango duena. Era berean, abian jartzeak izan ditzakeen gabeziak identifikatu eta minimizatzeko proposatutako neurriak.

5.-Proposatutako programa ebaluatzeko sistema: Zerbitzuaren etengabeko ebaluaketa, proiektuaren bideragarritasuna, etab. (5 puntu arte).

12. BERDINKETA

Proposamenen puntuazioan dagoen berdintasunaren aurrean, eta SPKLren 147. artikuluaren arabera, berdinketa erabakitzeko, eskaintzak aurkezteko epea amaitzen den uneari dagozkion irizpide sozial hauek aplikatuko dira, hurrenkera honetan:

1. Plantillan enplegatutako emakumeen ehuneko handiena.
2. Plantillan aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena.
3. Zozketa, aurreko irizpideen aplikazioak berdinketa haustea eragin ez badu.

Klausula honetan aipatzen diren berdinketa hausteko irizpideak egiaztatzeko agiriak berdinketa gertatzen den unean lizitatzen dutenek aurkeztuko dituzte, eta ez aldez aurretik.

13.- KONTRATAZIO MAHAIA.

Kontratazio-Mahai honako hauek osatuko dute:

Lehendakaria: Jon Ander Azpiroz Otegui (Alkatea)

Bokalak: Igor Iturain Ibarguren

Luisa Agirretxe Aizpitarte

Idazkaria: Joxemari Aiertza Zinkunegi.

14. ESKAINTZEN AURKEZPENA

Proposamenak aurkezteko, soilik **bitarteko elektronikoak erabiliko dira**, SPKLaren hamabosgarren xedapen gehigarrian jarritako baldintzekin bat etorriz, epe honetan Aiako Udaleko kontratatzailearen profilean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita eta HAMABOST (15) LANEGUNEKO epean.

Epearen azken eguna larunbata, igandea edo jaieguna bada, hurrengo egun baliodunera aldatuko da.

Eskaintzak Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako batean idatzita aurkeztu beharko dira.

Lizitatzaile bakoitzak proposamen bakarra aurkeztu ahal izango du, ezingo du beste batzuekin aldi baterako enpresa-elkartea eratuta beste eskaintzarik aurkeztu, ezta aldi baterako enpresa-elkarte batean baino gehiagotan agertu ere.

Lizitatzaileek agiriei edo, egonez gero, dokumentazio osagarriari buruzko informazio gehigarria eskatzen badute, informazio hori eskaintzak jasotzeko jarritako epe-mugaren aurreko sei egunen barruan emango zaie, baldin eskaera hori eskaintzak jasotzeko aurrez adierazitako epea bukatu baino gutxienez zortzi egun lehenago egiten badute.

PROPOSAMENEN EDUKIA:

Enpresa lizitatzaileek HIRU ARTXIBO ELEKTRONIKO aurkeztu beharko dituzte (A, B eta C).

1. "**A" ARTXIBO ELEKTRONIKOA "KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA**" deituko da, eta honako hauek jasoko ditu:
    - Europako Kontratazio Agiri Bakarra (EKAB)
    - EKAB formulario normalizatua eskuragarri dago era elektronikoan betetzeko web-orri honetan: https://ec.europa.eu/growth/tools-databases/espd/filter?lang=es

*ALDI BATERAKO ENPRESA ELKARTEAK

Hainbat enpresa aldi baterako enpresa-ekarte gisa aurkezten badira lizitazio honetara, enpresa horietako bakoitzak erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko du, eta horietan jasota egongo da Europako Kontratazio Agiri Bakarraren formularioan kasu hauetarako eskatzen den informazioa.

Aurreko paragrafoan aipatutako adierazpen horren edo horien osagarri gisa, aldi baterako elkartearen parte diren enpresen konpromiso bat aurkeztuko da. Hor adieraziko dute SPKLren 69. artikuluaren 3 atalean eskatutakoaren arabera egingo dela aldi baterako elkartea.

**ATZERRIKO ENPRESAK

SPKLren 67 eta 68 artikuluek aurreikusitako moduan egiaztatu beharko dute atzerriko

enpresek beren gaitasuna. Erantzukizunpeko adierazpenaz gain, atzerriko enpresek kontratuarekin zuzenean edo zeharka zerikusia duten gorabehera guztietarako Espainiako epaitegi edo auzitegien menpe jarriko direla adierazten duen agiria aurkeztuko dute, eta uko egingo diotela, hala behar badute, enpresa lizitatzaileei legokiekeen atzerriko jurisdikzio foruari.

2. **"B" ARTXIBO ELEKTRONIKOAk** azpititulu hau izango du: "ESKAINTZA TEKNIKOA".

Hona hemen aurkeztu beharreko agiriak: Plegu hauetako 11.2. klausulan adierazitako adjudikazio-irizpideak betetzen direla egiaztatzeko agiriak.
Plegu hauetan adierazitako adjudikazio irizpideen arabera, eskaintzaren puntuak baloratzeko beharrezko iruditzen zaion dokumentazio guztia sartuko du lizitatzaileak.

Artxibo horretan ez da inondik ere sartuko ez proposamen ekonomikoa ez eta automatikoki kuantifikatu daitezkeen adjudikazio-irizpideei buruzko beste daturik ere; horiek guztiak "C" artxiboan sartuko dira. Datu horietako edozein "B" artxiboan sartuz gero, agiri horiek ez dira baloratuko. Horrenbestez, automatikoki kuantifikatzekoak ez diren adjudikazio-irizpideei dagozkien puntuak soilik emango zaizkie.

3. **"C" ARTXIBO ELEKTRONIKOAk** azpititulu hau izango du: "PROPOSAMEN EKONOMIKOA". Hona hemen "C" artxiboan aurkeztu beharreko agiriak:

Kopuruetan edo portzentajeetan baloratzekoa den irizpideari buruzko eskaintza ekonomikoa sartuko da, hain zuzen, plegu honetako 11.1. atalean adierazitakoa. Plegu hauen II eranskineko ereduaren araberako eskaintza ekonomikoa aurkeztuko da.

Artxibo horretan ez da inondik ere sartuko balio- iritzi baten bidez baloratzekoak diren adjudikazio- irizpideei buruzko daturik (formula bidez ebaluatzeko ez dena); horiek guztiak "B" artxiboan sartuko dira.

Datu horietako edozein "C" artxiboan sartuz gero, agiri horiek ez dira baloratuko. Horrenbestez, automatikoki kuantifikatzekoak diren adjudikazio-irizpideei dagozkien puntuak soilik emango zaizkie.

15. AGIRIAK SAILKATZEA ETA PROPOSAMENAK IREKITZEA

Proposamenak aurkezteko epea amaitu ondoren, kontratazio-mahaia bilduko da, eta epe eta modu egokian jasotako dokumentazioa sailkatuko du ("A" artxiboa). Hori egiteko Herri Administrazioetako Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorreko 81. artikulua eta hurrengoak jarraituko dira.

Aurkeztutako dokumentazioa sailkatu ondoren eta, horrelakorik balego, ikusitako akats edo hutsuneak zuzendu eta gero, mahaiak zehaztu egingo du nortzuk izan diren lizitazioan onartuak, baztertuak eta bazterketaren arrazoiak.

Jendaurrekoa ez den egintza horretan, onartutako enpresen "B" artxiboa irekiko da (formula bidez ebaluatzekoak ez diren irizpideak), eta artxiboan sartutako agirien zerrenda irakurriko da. Ondoren, egintza bukatutzat emango da.

Jarraian, "B" artxibo edukia Aiako Udaleko teknikariei bidaliko zaie, edo beste teknikariei, formula bidez ebaluatzekoak ez diren adjudikazio-irizpideei buruzko txostena egin

dezaten. Hori bai, txosten horrez gain, beste txosten tekniko batzuk ere eskatu ahal izango dira, ebazpen-proposamena egiteko beharrezkoak direla uste izanez gero.

Eskatutako txostenak jaso ondoren Kontratazio- mahaia elkartuko da, jendaurrekoa ez den egintzan, eta txostenak baloratu eta enpresa lizitatzaile bakoitzari emango zaion puntuazioa erabakiko du.

Kontratazio-mahaiak, jendaurreko egintzan elkartuta, enpresa bakoitzak lortutako puntuazioaren emaitza jakinaraziko du. Horrez gain, eskaintza onartuak, baztertuak eta bazterketaren kausa edo arrazoiak zeintzuk izan diren ere adieraziko du. Hori egin ondoren, "C" artxiboak ireki (formula bidez ebaluatzeko irizpideak), eta barruan sartuta dauden eskaintza ekonomikoak irakurriko dira.

"C" artxiboa irekitzeko jendaurreko egintza Aiako Udaleko kontratatzailearen profilean adierazitako toki eta egunean izango da.

Kontratazio-mahaiari beharrezko iruditzen bazaio, "C" artxiboa udal teknikariei bidaltzea erabaki dezake, haiek azter ditzaten eta formula aritmetikoen bitartez ebaluatzekoak diren irizpideei buruzko txostena egin dezaten.

Gero, Kontratazio mahaiak kontratua adjudikatzeko proposamena aurkeztuko dio kontratazio organoari.

16. KONTRATUA ADJUDIKATZEA

Eskaintzak ireki eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, gehienez ere, bi hilabeteko epean egingo da kontratuaren adjudikazioa. Epe hori igaro eta oraindik adjudikaziorik egin ez bada, lizitatzaileek eskaintzak erretiratu ahalko dituzte.

Dena den, adjudikazioa nahitaez egin behar da, baldin eta aurkeztutako eskaintzaren batek administrazio-klausulen agirian eskatutako baldintzak betetzen baditu. Kasu horretan lizitazioa ezingo da hutsik laga.

Edonola ere, SPKLaren 152 artikuluan xedatutakoari jarraiki, kontratazio-organoak, adjudikazioa egin baino lehen, kontratua ez egitea erabaki dezake, herri-onurako arrazoiak direla- eta; edota tramitatutako prozeduran atzera egin dezake, prozedurak akats konponezinak baditu.

Kontratuaren adjudikazioak beti arrazoitua izan behar du, eta parte hartu dutenei jakinaraziko zaie. Aldi berean, kontratazio-organoaren kontratatzailearen profilean ere argitaratuko da.

Kontratazio-mahaiak egindako proposamena ikusita, eskaintza onena egiten duen enpresa lizitatzaileari eskatuko zaio ondorengo zirkunstantziei buruzko frogagiriak aurkez ditzala, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita zazpi egun balioduneko epean:

a) Lizitatzaileak bere izenean badihardu: nortasun-agiri nazionala. Beste pertsona edo erakunde baten izenean badihardu: nortasun-agiri nazionala eta notario-ahalorde askietsia.

b) Lizitatzailea pertsona juridikoa izanez gero, eratze edo aldaketa eskritura

aurkeztuko du, Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribatuta, eta identifikazio fiskaleko zenbakia, baldin inskripzioa derrigorrezkoa bada, aplikatu behar zaion merkataritzako legediaren arabera. Hala ez bada, eraketaren, estatutuen edo fundazio- egintzaren eskritura edo agiria aurkeztuko du jarduteko gaitasuna duela frogatzeko. Agiri hori erregistro ofizial egokian inskribaturik egongo da, hala behar denean, eta bertan agertuko dira lizitatzailearen jarduera zuzentzen duten arauak. Enpresariak espainiarrak ez badira baina bai Europako Erkidegokoak, lanbide edo merkataritza erregistro bateko inskripzioaren egiaztagiria aurkeztu beharko dute, beren estatuko legeriak inskribatu beharra ezartzen baldin badie. Edo bestela, zinpeko aitorpen bat edo ziurtagiri bat aurkeztu beharko dute, aplikatzekoak direnerkidegoko xedapenekin bat etorriz.

c) Indarrean dauden xedapenek agindu bezala, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak kitatuta daudela egiaztatzen duten agiriak.

d) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan (JEZ) alta emanda dagoela egiaztatzea, hain zuzen ere, kontratuaren xedeari dagokion epigrafean. Horretarako alta aurkeztuko da, baldin aurtengo ekitaldiari badagokio, edo JEZen azken ordainagiria gainerako kasuetan. Bi kasuetan erantzukizunpeko aitorpena ere aurkeztuko da, adierazteko zerga horren matrikulan ez duela bajarik hartu.

e) Enpresa lizitatzaileak kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala duela ziurtatu beharko du:

e.1) Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa frogatzeko bitartekoak: Urteko negozio bolumena kontratuaren xedea den zerbitzuetan enpresariaren jarduerak hasteko edo eratzeko eta eskaintzak aurkezteko datak kontuan hartuta azkenengo hiru urteetako bolumen handieneko urteari dagokiona, 110.000,00 euro edo handiagokoa izan behar du

Enpresa lizitatzailearen edo hautagaiaren negozioen urteko bolumena egiaztatzeko, urteko kontuak erabiliko dira (onartutakoak eta Merkataritza Erregistroan jasotakoak), enpresa Erregistro horretan inskribatuta badago; eta, bestela, inskribatuta egon behar duen Erregistro Ofizialean jasotakoak. Merkataritza Erregistroan inskribatu gabeko enpresari indibidualek urteko negozioen bolumena egiaztatzeko, berriz, Merkataritza Erregistroak legeztatutako inbentario-liburuak eta urteko kontuak erabiliko dituzte.

e.2) Kaudimen teknikoa: Azken bost urteetan gauzatutako antzeko zerbitzuen zerrenda, zerbitzuen sustatzaileak emandako gauzatze onaren ziurtagiriek bermatua. Ziurtagiri horiek honako hauek adieraziko dituzte: sustatzailea, zerbitzuaren izena eta gauzatze-lekua, adjudikazioaren zenbatekoa, likidazioaren zenbatekoa, hasiera-data, amaiera-data.

Derrigorrez egiaztatuko du kontratuaren xedearekin lotuta 110.000,00 euroko edo gehiagoko antzeko zerbitzu-kontratu bat egin duela azkenengo hiru urtean (BEZ gabe).

Adierazitako moduan egiten ez bada, aurkeztutako proposamena ez da baloratua izango.

f) Administrazio baldintzen agiriko 19. atalean adierazitako baldintzak betetzen

direla ziurtatzea.

g) Behin betiko bermea jarri izanaren frogagiria.
h) 300.000 euroko estaldurako Erantzukizun Zibileko aseguru-poliza kontratatuta izatearen egiaztagiria, polizaren eta dagokion ordainagiriaren bidez.

Oharra: a), b) eta e 1) letretan adierazitako zirkunstantziak honela egiaztatu ahal izango dira: Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen Erregistro Ofizialeko ziurtagiri bidez; Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Estatuko Erregistro Ofizialeko ziurtagiri bidez; edo Europako erkidegoko sailkapeneko ziurtagiri bidez, SPKLak 97. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz. Kasu horretan, ziurtagiriarekin batera lizitatzailearen zinpeko aitorpena aurkeztu beharko da, azaltzen duena ziurtagiri horretan adierazitako zirkunstantziek ez dutela inolako aldaketarik izan.

SPKLren 139.1. artikuluan xedatutakoaren arabera, proposamena egiteak baimena ematen die kontratazio-mahaiari eta kontratazio- organoari Estatuko edo Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean jasotako datuak kontsultatzeko.

Aurreko epea bukatu eta hurrengo bost egun baliodunetan egingo da adjudikazioa, betiere lizitatzaileak adierazi zaizkion dokumentuak aurkeztu baditu eta behin betiko bermea jarri badu.

Eskakizun horiek zehaztutako epean ez betetzeagatik adjudikazioa egiten ez bada, beste deialdi bat egin aurretik, Administrazioak aukera izango du hurrengo lizitatzaileari edo lizitatzaileei adjudikatzeko, eskaintzak sailkatu diren hurrenkeraren arabera, betiere hala egitea posible bada eta enpresa adjudikaziodun berria ados badago. Egoera horretan, hamar egun balioduneko epea irekiko da aipatu berri den guztia burutzeko.

SPKLak 152.2 artikuluan aurreikusten duenari jarraituz, kontratua egiten ez bada, edota adjudikazioaren aurretik kontratazio-organoak erabakitako prozedura honi uko egiten bazaio, Administrazioak zehaztuko du lizitatzaileei eragindako gastuaren zenbatekoa, aurretik haiekin egon eta justifikazioak entzun ondoren.

Aurkeztutako eskaintzak —bai onartutakoak bai ireki gabe baztertutakoak edo ireki ondoren atzera botatakoak— bere espedientean artxibatuko dira. Kontratua adjudikatu ondoren errekurtsoak jartzeko epea irekiko da. Epe horretan errekurtsorik jarri ez bada, proposamenarekin batera aurkeztutako dokumentazioa interesdunen eskura utziko da.

Dokumentazio hori interesdunen eskura jartzen denetik hilabeteko epean (1 hilabete) inork jasotzen ez badu, administrazioak erabaki dezake pertsona edo enpresa lizitatzaileek aurkeztutako dokumentazioa suntsitzea.

Kontratua lizitazioaren baldintzetara zehatz- mehatz egokitzen den agiri administratiboan formalizatu behar da; horretarako Udalaren aurrean aurkeztu behar da.

Administrazioaren erruagatik kontratua formalizatu gabe geratzen bada, atzerapenak eragindako kalte-ordainak ordainduko zaizkio enpresa adjudikaziodunari.

17. KONTRATUA FORMALIZATZEA

Lizitazioaren baldintzetara zehatz-mehatz egokitzen den agiri administratiboan formalizatu behar da kontratua, SPKLak 153 artikuluan xedatu bezala; horretarako Udalaren aurrean aurkeztu behar da.

III. KONTRATUA GAUZATZEA

18. KONTRATUAREN ARDURADUNA

Aiako Udaleko Alkatea izango da kontratu hau gauzatzearen arduraduna, SPKLren 62. artikuluan xedatutakoaren arabera.

19. KONTRATUA GAUZATZEA

Enpresa adjudikaziodunaren gain eta kontura beteko da kontratua, SPKLaren 197. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Kontratua gauzatzeko, plegu honetan jasotako klausulak eta espedienteari erantsitako zehaztapen teknikoak jarraituko dira, eta betiere, Administrazioaren zuzendaritza, ikuskapen eta kontrolpean. Administrazioak idatziz nahiz ahoz erabili ahal izango ditu ahalmen horiek.

Enpresa adjudikaziodunari edo bere mendeko pertsonei leporatu ahal zaizkien ekintzengatik edo omisioengatik kontratuaren martxa ona arriskuan jartzen denean, Administrazioak kontratuaren martxa ona lortzeko edo berreskuratzeko beharrezkotzat jotzen dituen neurriak hartzea agindu dezake.

Kontratista berari egoztekoak diren arrazoiak direla-eta, epea bere osotasunean betetzerakoan berandutzen bada, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera uztea edo SPKLren 192 eta 193. artikuluek aurreikusitako zigorrak jartzea.

Kontratuaren xede den prestazioa gaizki betetzen den kasuetan, kontratazio-organoak zigorrak jarri ahal izango ditu, larritasunaren proportzioan: kontratuaren adjudikazio-prezioaren % 1etik % 10era bitartean.

20. KONTRATUA GAUZATZEKO BALDINTZA BEREZIAK

Hizkuntza arloan. Eskubideak eta betebeharrak euskararen erabileran.

20.1.-BALDINTZA-AGIRI ADMINISTRATIBOETAN TXERTATU BEHARREKO HIZKUNTZA BALDINTZAK

1.1. Kontratu honek nahitaez bete behar du hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan ezarria eta Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean eta hori garatzen duten arauetan erregulatua, besteak beste,

20.2.- BALDINTZA-AGIRI TEKNIKOETAN TXERTATU BEHARREKO HIZKUNTZA BALDINTZAK

2.1. Zerbitzu hizkuntza:

Kontratu honen xede diren prestazioaren berezko ezaugarriak direla-eta, kontratuaren zerbitzu hizkuntzak euskara eta gaztelera izango dira, beti ere erabiltzailearen hizkuntza-hautua errespetatuz eta ahal den neurrian.

2.2. Zerbitzua emango duten langileen hizkuntza gaitasuna:

Kontratua betetzeko behar diren lanpostuen eginkizunen arabera, honako hizkuntza gaitasuna eskatuko zaie:

- Zerbitzuko arduradun edo Koordinatzailea: Europako Erreferentzia Markoaren C1 gaitasun maila (EGA edo baliokidea) izatea eskatuko zaio.

Kontratua esleitu aurretik egiaztatu beharko du enpresak zerbitzua emango duten pertsonek badutela eskatutako hizkuntza gaitasuna.

Era berean, enpresa kontratatu eta geroago zerbitzua emango duen pertsona berririk sartuko balitz, horiek ere eskatutako hizkuntza gaitasuna egiaztatu beharko dute.

Hizkuntza gaitasuna egiaztatzeko honako bi bideak erabili ahal izango dira:

1. Eskatutako hizkuntza gaitasuna daukatela ziurtatzen duen agiria aurkeztea edo.

Subrogatzeko eskubidea duten langileen artean badira eskatutako hizkuntza gaitasuna betetzen ez dutenak, kasu zehatz horietan, ez dira aplikatuko laguntzaileei eskatutako hizkuntza gaitasunak.

2.3. Udalarekiko harremanak:

Administrazio kontratatzailearekin euskara erabiliko da, oro har, kontratuaren ondorioz sortzen diren harremanetan:

a) Ahozko komunikazioak: Administrazioarekin euskaraz jardun ahal izateko behar den besteko euskarazko hizkuntza-gaitasuna duten langileak izendatuko ditu enpresak Administrazioarekiko harremanetarako.

Idatzizko komunikazioak: Kontratuari lotutako idazki guztiak (fakturak, txostenak, bileretako aktak...) euskaraz egingo dira, hedapenerako diren agiriak, ele bietan.

20.3. Enpresa adjudikaziodunaren lan eskubideak eta betebeharrak.

Kontratuak derrigorrez bete beharko ditu lan- arloan, Gizarte Segurantzaren arloan eta laneko segurtasun eta osasunaren arloan indarrean dauden eta aplikagarri diren legezko, arauzko eta hitzarmenezko xedapenak.

Kontratua indarrean den bitartean, kontratuaren hasierako plantillan aldaketak gertatzen badira (bai erretiro, heriotza, borondatezko baja, kaleratze, aldi baterako ezintasun, ezintasun iraunkor eta abarrengatik, bai zerbitzuaren beharrengatik), baja hori bete aurretik adjudikaziodunak Udalari horren berri emango dio.

Adjudikaziodunaren ardura osoa izango da bere zerbitzuan izango dituen langileen kontratazioa eta horien prestakuntza. Aiako Udalak ez du inongo harreman juridikorik izango adjudikaziodunarentzat lanean diharduten langileekin, ez agiri hauen xede den kontratua indarrean den bitartean ez kontratua bukatu ondoren ere.

Kontratuaren xede den jardueran arituko diren langileei zein hitzarmen kolektibo aplikatu zaien adierazi beharko dute lizitatzaileek, adjudikazioa lortzen badute.

Halaber, behin kontratua adjudikatu eta gero langileei benetan aplikatuko zaizkien lan baldintzei buruz eskatzen zaien informazio guztia ematera behartuta egongo dira.

Hitzarmen kolektiboan jasotako soldata ordaindu beharko du enpresa adjudikaziodunak kontratua gauzatzen den denbora guztian, beti ere langileari dagokion lanbide-kategoriaren arabera, eta ordaintzekoa den soldata ezin izango da, inola ere, txikiagoa izan.

Klausula honetako baldintzak kontratuaren funtsezko betebeharrak dira, SPKLren ondorioetarako. Hortaz, baldintzak betetzen ez badira, kontratua bertan behera gelditu ahal izango da, lege horren 221.f) artikuluaren arabera.

21. SUBROGAZIOA ETA LANGILEAK HAUTATZEA

Gaur egun zerbitzua ematen ari diren langileen subrogazioa dela eta**, indarrean dagoen araudia eta estatuko lan-hitzarmen kolektiboa bete beharko ditu enpresa adjudikaziodunak** kontratua betetzerakoan. Jakinerazi, estatuko lan-hitzarmen jasotako orduko ordaintzen den euro kopuruan hobekuntza bat duela, hau da, soldata gordinaren orduko ordaintzen den prezioa 12 eurotakoa dela.

SPKLren 130. artikuluan jasotakoa betez, Administrazio-klausula Zehatzen Agiri honetako II. eranskinean azaltzen dira gaur egun zerbitzuari atxikita dauden langileen izen-zerrenda, bai eta antzinatasunari eta horretarako aitortutako eskubideei buruzko hainbat datu ere.

Plegu hauen idazketa unean aplikatzen den lan hitzarmena IV.Eranskinean zehazten dena da. Berriztatzen ez bada edo eta beste berri batengatik ordezkatzen, hitzarmen hau izango da aplikatuko dena.

Halaber, subrogatutako pertsonalaren eskarmentua kontuan hartuz, eta betiere zerbitzuan beharra baldin badago, langile berriak kontratatu baino lehen, subrogatutako langileen lanaldia handitzera, edo hala badagokio, lan- harremana berritzera behartuta egongo da enpresa adjudikazioduna. Enpresaren ondorengotzak eragindako langileen lan-harremanak transmisioaren unean enpresan ezartzekoa zen hitzarmen kolektiboaren araberakoak izango dira. Horrez gain, langile berriak kontratatzeko garaian, beren soldata- maila etalan-baldintzak subrogatutako langileenekin parekatu beharko ditu enpresa adjudikaziodunak.

Udalak ez du inolako erantzukizunik izango adjudikaziodunaren eta haren langileen arteko harremanei dagokienez. Udalak ez du inolako harreman juridikorik, lan-harremanik edo bestelakorik izango adjudikaziodunaren langileekin, ez kontratua indarrean dagoen bitartean, ez kontratua amaitzean, eta adjudikaziodunaren kontura izango dira kontratua dela eta sortzen diren betebehar, kalte- ordain eta erantzukizun guztiak.

Adjudikaziodunak lan-legeriari, Gizarte Segurantzari eta 31/1995 Lege osoari (Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legea) buruzko xedapenak eta lege hori garatzen duten errege- dekretuak bete beharko ditu, bai eta zerga-arloari buruzkoak ere. Udalak ez du inolako erantzukizunik izango gerta daitezkeen ez- betetzeengatik.

Langile horiek guztiak soil-soilik enpresa adjudikaziodunaren mende egongo dira, berak dituelako patroi bezala dagozkion eskubide eta betebeharrak. Bestalde, lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta higienearen arloan indarrean dauden xedapenak beteko ditu, bere kargura dituen langileekin.

22. ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK

Kontratuaren ondorioetarako, enpresa adjudikaziodunaren edozein ekintza edo ez-egite hutsegite zigorgarritzat jotzen da, baldin halakoekin pleguan zehaztutako baldintzak urratzen badira.

Zigorrak ezartzeko, espediente arrunta tramitatu beharko da. Udalak edozein bitartekoren bidez hutsegitearen berri duenean hasiko da prozesua. Udal zerbitzu eskudunek gertakariak argitzeko egin beharrekoak egingo dituzte, enpresa adjudikaziodunari entzun ondoren.

Udalak zigorrak jarri ahal dizkio enpresa adjudikaziodunari arau-hauste arinak, larriak edo oso larriak egiten baditu bere betebeharretan. Aurretik kontraesan espedientea irekiko da.

Arau-hauste arinak

a. Administrazioari ez jakinaraztea, bere denboran eta moduan, enpresa adjudikaziodunak hasieran emandako datu formaletan gertatutako aldaketak.
b. Beste edozein ekintza eta ez-egitea, pleguetan jarritakoa urratzen dutenean baina arau-hauste larriak edo oso larriak ez direnean.

Arau-hauste larriak

c. Kontratuaren xede den zerbitzua emateko moduan behin eta berriz urratzea pleguetan jarritakoak. Arau- haustea errepikatzen dela ulertuko da, bi aldiz gertatzen bada bi hilabetean edo lau aldiz urtebetean.

- Administrazioaren ikuskapen-lanak eragotzi eta oztopatzea.
- Jarritako neurri zuzentzaileak aplikatzeko Administrazioak egiten dituen eskaerei kasurik ez egitea.
- Antzemandako akatsak konpontzeko Udalak emandako aginduak era barkaezinean desobeditzea.
- Eskatutako aseguru-polizen ordainagiriak ez ordaintzea.
- Hiru arau-hauste arin edo gehiago egitea.

Arau-hauste oso larriak

- Zentroko zerbitzuetako erabiltzaileen duintasuna urratzea, zerbitzuetan sartzeko edo horiek gozatzeko baldintza iraingarriak jarrita.
- Edozein ekintza edo ez-egite, erabiltzaileen osotasun edo osasunean arrisku handia edo larria sortzen duenean.
- 3 arau-hauste larri edo gehiago egitea.

Arau-hauste arinek 150 euroko isuna izango dute. Arau-hauste larriek 151 eta 1.000 euro arteko isuna izango dute eta Arau-hauste oso larriek 1.001 eta 12.000 euro arteko isuna izango dute.

Arau-haustea egiaztatu eta gero, eta kontratistari entzunaldia eman ondoren, kontratazio-organoak dagokion zigorra jarriko du, klausula honetan jarritakoarekin bat etorriz. Enpresak berriz ere arau-hausteak egiten baditu, zerbitzu teknikoek proposatu dezakete kontratua bukatzea. Kasu horretan enpresa adjudikaziodunak ez du kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango.

23. ENPRESA ADJUDIKAZIODUNAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA BURUTZERAKOAN BESTE BATZUEI KALTEAK ERAGITEN BADIZKIE

Enpresa adjudikaziodunak bere gain hartuko ditu kontratua betetzeak dakartzan lanen ondorioz hirugarrengoei egindako kalteak eta galerak, SPKLak 196 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz. Horren ondorioetarako, 300.000 euroko aseguru-poliza bat izenpetu beharko du. Estaldura horrek indarrean jarraitu beharko du kontratuak irauten duen denbora osoan eta, halakorik balego, luzapenetan.

24. KONTRATUA ALDATZEA

Behin kontratua burututa, interes publikoko arrazoiengatik bakarrik sartu ahal izango dira aldaketak, klausula honetan aurreikusitako kasuetan edo SPKLren 205. artikulua.

Interes publikoko arrazoiengatik aldaketak egin ahal izango dira, baldin eta behar bezala justifikatzen bada SPKLren 205.2 artikulua. Kasu horretan, dagokion sailak, kontratuaren arduradunarekin batera, dagokion proposamena idatziko du, eta proposamen hori justifikatzeko, deskribatzeko eta baloratzeko dokumentuek osatuko dute. Administrazioak aldaketa onartzeko, enpresa kontratistari entzun beharko dio aldez aurretik. Aldaketak kontratazio- organoak onartu beharko ditu, SPKLren 191. eta 207. artikuluetan ezarritakoaren arabera formalizatzea eta administrazio-dokumentu batean formalizatzea. SPKLren 153. artikulua, behin betiko bermea egokitu ondoren, hala badagokio.

25. KONTRATUA BUKATZEKO ARRAZOIAK

Kontratua bukatzeko arrazoiak izango dira: SPKLren 211 artikuluan aurreikusitakoak, bai eta lege bereko 313 artikuluan bereziki zerbitzu- kontratuetarako jasotakoak

Kontratua bukatzeko berariazko arrazoia izango da administrazioarekin kontratatzeko betekizunak bat-batean galtzea (kontratatzeko gaitasuna eta kaudimena galtzea eta kontratatzeko debekuren bat izatea), SPKLan jartzen duen moduan.

26. ADMINISTRAZIOAREN ESKUBIDEAK

Administrazioari honakoak dagozkio: a) kontratua interpretatzea b) kontratuan sortzen diren zalantzak argitzea c) interes publikoko arrazoiengatik kontratua aldatzea d) kontratua amaitzea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, SPKLan eta Herri Administrazioetako Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorrean ezarritako mugen barruan eta horiek zehaztutako baldintza eta ondorioak betez.

27. KONTRATUA HIRUGARRENEI LAGATZEA

Aiako Udalak berariaz baimendu ezean, adjudikaziodunak ezingo dizkio kontratuaren eskubideak eta betebeharrak beste pertsona edo erakunderen bati laga edo eskualdatu.

28. IZAERA PERTSONALEKO DATUEN BABESA

a) Enpresa adjudikaziodunak hauetan xedatutakoa bete beharko du: 2016/679 Erregelamendua (EB), 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa (95/46/CE Zuzentaraua indargabetzen duena); eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa.

b) Baldin, enpresa kontratistak edo subkontratistak, kontratua dela-eta, datu pertsonalak tratatzen edo eskuratzen baditu, Sektore Publikoko Kontratuen Legeak hogeita bosgarren xedapen gehigarrian xedatutakoa beteko du, bai eta honako arau hauek ere:
   - Tratamenduaren arduradunak emandako jarraibideen arabera bakarrik tratatuko ditu datuak kontratistak.
   - Tratamenduaren xede diren datu pertsonalak hitzarmenaren helburua betetzeko bakar- bakarrik erabiliko dira; ezingo dira, beraz, adierazitako xederako ez beste baterako erabili.
   - Kontratu honen ondorioz tratatutako datu pertsonal bat bera ere ez zaie hirugarrenei jakinaraziko. Horrenbestez, kontratistak hitz ematen du. datuok edo horiekin sortutako fitxategiak ez dizkiola jakinaraziko, lagako, transferituko edo komunikatuko hirugarren bati, ez ahoz ez idatziz, ez bitarteko elektronikoen bidez, ez paper bidez, ez sarbide informatikoen bidez, ezta ikusteko ere.

3. Datuak isilpean edukitzeko betebeharra dute bai kontratistak bai kontratuaren xede den zerbitzuan esku hartzen duten langile guztiek, Datu Pertsonalen Lege Organikoan aipatzen den bezala. Kontratua bete delako edo suntsitu delako iraungi ondoren ere, betebehar horrek iraun egingo du.

4. Kontratistak hitz ematen du datuen babesaren arloko araudian eta Segurtasuneko Eskema Nazionalean eskatutako bitarteko tekniko, administratibo eta antolakuntzakoak hartuko dituela, hitzarmenaren xede den zerbitzua betetzeko behar diren datu pertsonalen segurtasuna bermatzeko:

   a) Horri dagokionez, lanean hasi aurretik, enpresak kontratazio-organoari

zerrenda bat emango dio, datu pertsonalak eskuratzeko aukera izango duten langile guztien izenekin, abizenekin, funtzioekin eta lana garatuko duten lekuekin. Kontratua bete bitartean langile berriak sartu edo daudenei baja eman behar bazaie, enpresa adjudikaziodunak zerrenda berri bat entregatuko du, aldaketa gertatu denetik gehienez ere astebeteko epean. Bai enpresa adjudikaziodunak bai zerrenda horietan azaltzen diren langileek formalki hitz eman behar dute, idatziz, tratatutako datuei buruzko sekretu profesionala gordeko dutela.

b) Adjudikaziodunak baldintza teknikoetan zehazten diren segurtasun-neurriak aplikatuko ditu tratamendu-zentroetan, lokaletan, ekipoetan, sistemetan eta programetan, baldin eta halakorik zehazten bada.

c) Kontratuaren xede den zerbitzua bukatu ondoren, adjudikaziodunak itzuli edo suntsitu edo ezabatu egingo ditu datu pertsonalak dituzten fitxategi guztiak. Suntsiketa egin ondoren ezinezkoa izango da horiek berreskuratzeko edozein prozesu aplikatzea. Akta bidez egingo da fitxategiak itzultzearen edo suntsitzearen ziurtagiria, eta enpresa adjudikaziodunaren ordezkariak eta lanen zuzendaritza betetzen duen pertsonak sinatuko dute. Aktan zirkunstantzia horiek guztiak jasoko dira.

III.- IZAERA, ARAUBIDE JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

29. IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA

Klausulen agiri honen arabera egin behar den kontratua administrazio mailakoa izango da, eta kontratuan bertan zehazten ez den guztiari dagokionez, honako hauek bete beharko dira: a) Sektore Publikoko Kontratuen Legea; b) Herri Administrazioetako Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra; c) Eta kasuan kasu, Administrazio Publikoen kontratazioan aplika daitezkeen arauak.

Administrazio-klausulen Agiri honen eta espedientearekin batera doan dokumentazio teknikoaren artean kontraesanik izanez gero, agiri honetan zehaztutakoa nagusituko da.

30. JURISDIKZIO ESKUDUNA

Era berean, kontratutik sortzen diren auziak administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren menpe egongo dira. Nolanahi ere, bi alderdiek nahi izanez gero, auziak arbitrajearen bitartez konpon daitezke, indarrean dagoen legedian zehaztutakorekin bat etorriz.

Kontratua interpretatzetik, aldatzetik, bukatzetik eta horren ondorioetatik sortzen diren auziak kontratazio-organoak ebatziko ditu. Horretarako hartutako akordioek administrazio-bidea agortuko dute. Akordio horien aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da, jurisdikzio hori arautzen duen Legean xedatutakoarekin bat etorriz; dena den, 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 123 eta 124. artikuluetan aurreikusitakoaren

arabera, interesdunek aukeran izango dute berraztertze errekurtsoa jartzea.

Bestalde, SPKLaren 44 artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera, kontratu honi kontratazio-arloko errekurtso berezia jarri ahal zaio.

I ERANSKINA. ESKAINTZA EKONOMIKOA

Izen-abizenak .....

Nortasun-agiria ……..

Helbidea .....

Posta Kodea.....

Telefonoa ..... Posta elektronikoa ……..

Ordezkariaren datuak (ordezkaririk egonez gero)

Izen-abizenak .....

Nortasun-agiria edo IFK ……..

Helbidea .....

Posta Kodea .....

Telefonoa ..... Posta elektronikoa ……

AIAKO UDALEKO ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA

ADIERAZPENA:

1.-Konpromisoa hartzen dudala onetsitako pleguen arabera zerbitzu hau baldintza honetan gauzatzeko:

Zerbitzu osagarriak:

Ohiko garbiketak indartuko dituzten ohiz kanpoko garbiketak ……..ordu.

Kontsultetara eta kudeaketa administratiboetara laguntzea …… …. ordu

Langileak funtsezko gaitasunetan gaitzeko formakuntza plana: …….. Ordu.

Eskaintza ekonomikoa etxez etxeko laguntza:

Asteguneko prezioa (astelehenetik larunbatera):……BEZ barne
(…….. euro + ……..…euro BEZa)

Igande eta jaiegunetako prezioa: ……..BEZ barne
(…… euro + ……..… euro BEZa)

2.-Administrazio-klausula zehatzen eta teknikoen agiria, eta kontratu hau arautu behar duten gainontzeko agiriak ezagutzen ditut. Horiek horrela, nire gain hartu eta ontzat ematen ditut oso-osorik.

3.-Kontratuak burutzeko indarrean dagoen araudiak eskatutako baldintza eta betebehar guztiak betetzen ditut.

4.- Era berean, lanaren zein zergen arloan legeak dioena edo araututa dagoena beteko dut.

.....-(e)n, 2026ko ……..... –ren ……..an.

Sinadura

AIAKO UDALA

II. ERANSKINA

AZPIKONTRATATU BEHARREKO LANGILEAK

2025 URTEKO LANGILEAK					
Enpresa:			ASOC. LAN ALAIA ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA EL		
Langilea		Aintzinatasuna		Diru sarrera gordina	Jardunaldia (%)
LANGILEA 1		02/08/2004	MEDIA	1.505,50	83,81
LANGILEA 2		17/06/2014	MEDIA	2.474,00	100%